



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, [REDACTED]
JAUNAK BIZKAIKO PADEL FEDERAZIOKO KONTU-HARTZAILEAK
2017KO APIRILAREN 18AN EMANDAKO EBAZPENAREN AURKA
JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

Espedientea: 38/2017

AURREKARIAK

LEHENA.- [REDACTED] jaunak, bere izenean eta 8 klub, 3 kirolari, teknikari 1 eta arbitro 1en ordezkari gisa, errekurtsoa aurkeztu zuen batzorde honetan, Bizkaiko Padel Federazioko (aurrerantzean, BPF) kontu-hartzaileak apirilaren 18an emandako ebazpenaren aurka.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtso hori izapidetzea onartu zuen, eta errekurritutako aldeari jakinarazi zion hamabost laneguneko epea zuela zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotako froga-izapideak proposatzeko.

HIRUGARRENA.- BPFko kontu-hartzaileak, ekainaren 12ko sarrera-erregistroa duen idatzi baten bidez, eskatutako dokumentazioa helarazi zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan jasotakoaren arabera, KJEBk du errekurtsoaz arduratzeko eskumena.



BIGARRENA.- Alderdi errekurtsogileak, errekurtsuan, honako hau eskatu du: «BPFko kontu-hartzaile edo hauteskunde-organoaren apirilaren 18ko ebazpena atzera botatzea, baita 2017ko urtarrilaren amaieran argitaratu ziren eta BPFko hauteskunde-prozesura berriro deitzen zuten dokumentuak ere».

HIRUGARRENA.- Errekurtso hau behar bezala ulertzeko, aurrekariak aztertzea komeni da eta, horietatik, honako jazoera eta datu hauek nabarmenduko ditugu:

1.- 2016ko maiatzaren 2ko Ebazpenaren bidez, Bizkaiko Padel Federazioko Hauteskunde Batzordeak orain errekurtsogile direnak beren epaile- eta teknikari-estamentuei lotutako behin-behineko hautagaitzetatik kanpo utzi eta baztertu zituen.

2.- Errekurtsoa jarri zutenean, batzorde honek aintzat hartu zuen, 2016ko uztailaren 14ko bilkuran hala erabakita. Erabaki hartako bosgarren zuzenbideko oinarrian honako hau dago jasota: «Errekurtsogileak apirilaren 19an onartu ziren behin betiko hauteskunde-erroldan eta aurkeztu ziren hautagaitzen behin-behineko zerrendetan agertzen zirenez, auziaren mamia hau da: arrazoi horiengatik hautagaitzetatik baztertzeko erabakia, maiatzaren 2koa, hauteskunde-araudiaren araberakoa den edo ez ebaztea.

Eta erantzuna ezezkoa da, hautagaitzetatik baztertzeko erabakia ez dela hauteskunde-araudiaren araberakoa. Horren arrazoia zera da: hauteskunde-erroldak onetsi eta hautagaitzak behin-behinean onartu ostean, aintzat har daitekeen inpugnaziorako arrazoi bakarra 10. artikuluan adierazitako baldintzak ez betetzea da eta Hauteskunde Batzordeak ez du horrelakorik argudiatu; hau da, Bizkaian kirol-jarduera esanguratsurik egin ez izana edo Euskadiko Padel Federazioak emandako lizentziarik ez izatea».

3.- Hauteskunde Batzordeak, erabaki hori ontzat eman edo errekurritu ordez, irailaren 5ean beste ebazpen bat eman zuen. Horren arabera: **a)** beste



hauteskunde-egutegi bat onartu zuen; **b)** beste hauteskunde-errola bat onartu zuen; **c)** Batzar Nagusiaren eraketa onartu zuen; eta **d)** erabaki horiek argitaratu eta Hauteskunde Batzordean erreklamatzeko epea ezarri zuen.

4.- Berriro ere errekurtsua jarri eta hauteskunde-prozesua kautelaz eteteko eskatu ostean, batzorde honek eteteko eskaera aintzat hartu zuen eta irailaren 29an ezarri zuen kautela-neurria; horrez gain, 2016ko azaroaren 3ko ebazpenari jarraikiz, honako hau erabaki zuen: «**1.-** [REDACTED] jaunak eta 11 pertsona gehiagok aurkeztutako errekurtsua, Hauteskunde Batzordeak irailaren 5ean eta 8an hartutako erabakien kontrakoa, aintzat hartzea. **2.-** Ez onartzea Bizkaiko Padel Federazioak aurkeztutako errekurtsua, batzorde honek irailaren 29an hartutako erabakiaren kontrakoa».

5.- Horiek horrela, Euskara eta Kulturako foru-diputatuaren abenduaren 1eko 3302/2016 Foru Aginduaren bidez, Bizkaiko Padel Federazioaren ordezkari-tza eta administrazio-organoa, orobat Hauteskunde Batzordea, kautelaz bertan behera uztea erabaki zen; ondorioz, [REDACTED] andrea kontu-hartzaile izendatu eta hauteskunde-gaietan gaitasunik gabe utzitako organoen funtzioak bere gain hartzeko eskumenak eman zitzaizkion.

6.- Kontu-hartzaileak 2017ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bidez berriz ere Federazioaren Batzar Nagusirako hauteskundeetara deitu zuenez, prozesu guztia berrabiarazi zen. Orain errekurtsogile direnek ebazpen hori errekurritu ostean, ezetsita geratu zen 2017ko apirilaren 18ko Ebazpenaren bidez, eta azken ebazpen horren kontra jarri da oraingo errekurtsua.

LAUGARRENA.- Errekurtsogileen asmoa ez da hauteskunde-prozesu osoa hasieratik berrabiatzea, aurreko deialdiko jarduketak baliozkotzat emanaz prozesuarekin aurrera jarraitzea baizik. Ondorioz, oraingo hauteskunde-deialdia desegokitzat jotzea eskatzen dute, orobat 2017ko urtarrilaren 31ko Ebazpena



bertan behera uztea, eta hauteskunde-prozesuarekin jarraitzea, batzorde honek 2016ko uztailaren 14ko erabakia eman zuen unetik.

Gainera, aintzat hartuta errekurtsogile batzuk –zehazki, 6 klub– ez direla errolda berrietan ageri, kontua ez da arin tratatzekoa; izan ere, jarrera bat edo bestea hartu, horren arabera izango dute hauteskundeetan parte hartzen jarraitzeko aukera.

BOSGARRENA.- Errekurtso honen xedea honela planteatuta, kontua aurreko ataleko 5. zenbakian aipatu den Foru Aginduari zer ondorio edo efektu juridiko esleitzen zaizkion zehaztea da.

Hala, Aginduak zehazten du esku-hartzea partziala dela eta hauteskundeetarako egiten dela, «hauteskunde-prozesua gauzatzeko eta Federazioko organoak berritzeko».

Batzorde honen iritziz, «hauteskunde-prozesutzat» hartu behar direla hauteskundearen deialditik hasita federazioko organoak izendatu arteko fase guztiak.

Hori dela eta, esku hartzeko ahalmenak gaitasunik gabe utzi den organoaren – hau da, Hauteskunde Batzordearen– funtzioak bere gain hartzea dakarrela kontuan hartuta, Aginduak «ex tunc» efektuak ditu, hau da, gaitasunik gabe utzitako organoak bere jarduerak hasi zituen uneraino egiten dutela atzera.

Plantea liteke gauzatu den jarduketaren bat kontserbatu al litekeen –39/2015 Legeko 51. artikulua aplikatuta–, baina Aginduak ez du ezer adierazten ildo horretan. Are gehiago, berez kontraesankorra litzateke; izan ere, organoa bertan behera uztearen eta esku-hartzearen oinarrian dago –Aginduaren azalpen-zatian arrazoitzen den bezala–, hain zuzen ere, «federazioko hauteskunde-prozesuari loturiko funtzio publiko eskuordetua ez betetzea»; hori



dela eta, errekurtsogileek eskatzen dutena egiten bada, hau da, egindako ekintzak berriro baliozkotzen badira, esku-hartzeak justifikaziorik ez zuela onartuko da.

Hori guztia dela eta, Batzordeak honako hau

EBAZTEN DU

██████ jaunak 2017ko apirilaren 18an Bizkaiko Padel Federazioko kontu-hartzaileak hartutako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea